

Hernanik Kronika

2005eko abenduaren 18a, igandea ::: 1687 zka. ::: www.kronika.net



❖ SANTO TOMAS Txistorrada eta festa gaur Kaxkoan eta auzoetan

Santo Tomas datorren asteazkenean ospatzen da baina festa gaur antolatu dute Hernaniko zenbait lekutan. Plaza Berrin, eguerdian, txistorra pintxo eta bokadilloak izango dira edanarekin lagunduta, eta arratsaldeko 18:00etarako erromeria antolatu dute. Orkolagan, goizeko 11:00etatik aurrera sagardo dastaketa, txistorra eta gaztainak probatu ahal izango dira; eguerdian trikitixa eta arratsaldeko 16:30etan kontzertuak izango dira: El Furu, Orreaga778, Suburbio eta Afoña taldeekin. Sorgintxulon, eguerdiko 12:00etan, txistorra prestatuko dute auzotar guztientzat. ||

Usoko-Epelerrekan bertako haritza eta pagoa aldatuko dute pinua eta norteko haritzaren orde

Diputazioak 'Life Aiako Harria' proiektua aurkeztu zuen Europako Batasuneko 'Life' ingurugiro programan sartu eta subentzioa jasotzeko. Hernanin 30 ha-tan aldatuko dira zuhaitzak.

USOKO-Epelerrekan bertako haritza eta pagoa aldatuko dute, norteko haritza eta pinuaren orde. Ekimen hau Europako Batasunetik datorren Life programaren barruan dago, programa honek ingurumenarekin lotutako ekimenak finantzatzen ditu. Diputazioak 2005eko deialdian Life Aiako Harria proiektua aurkeztu zuen, beste 182 proiektuekin batera eta onartu ziren 54 proiektutatik 6garren postua lortu zuen ekimen honek. Orain Hernaniko Udalak sinatu du hitzarmena Diputazioarekin, izan ere Aiako Harriko parke naturalak dituen 6.913 hektatik 621,1 ha Hernanikoak dira. Haritza eta pagoa aldatuko dira Usoko-epelerrekako 30 ha-tan.



Kendutako pinu eta norteko haritzak saldu egingo dituzte.

Hernaniko Udalak 43.634 euro jarriko ditu
Ekimenak guztira 120.924 eu-

roko aurrekontua du eta Europa Batasunak subentzionatu du neurri handi batean.

Hernaniko Udalak 43.634 euro ordainduko ditu, 21.817 euroko bi zatitan, 2007 eta 2008 urteetan zehar.

Itzaki Arratibel, ingurugiroaz arduratzen den zinegotziak adierazitakoaren arabera zuhaitz berriak jartzeko aterako diren norteko haritzak eta pinuak saldu egingo dira eta hortik ere aterako da dirurik.

Ekimena gauzatzea, hau da, zuhaitzak aldatzea, proiektua idaztea, kontratazioa, lanak zuzentzea, eta abar, Diputazioak egin beharko du.

Hernaniko Udalaz gain, proiektu honetan sartuta daude Errenteriako Udala, Oiartzungo Udala, Irungo Udala, Basoa Fundazioa, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritza eta Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitatearen Zuzendaritza. ||

◆ ATLETISMOA Karabelgo krossa

Belkara auzo elkarteak antolatuta gaur Karabelgo VII Krossa izango da. Gazteenek goizeko 10:00etatik aurrera izango dituzte lasterketak. Helduen lasterketak goizeko 11:00etan hasiko dira. ||

❖ AMHER Bilera asteartean

AMHER elkarte multikulturak bilera egingo du datorren asteartean, arratsaldeko 19:00etan Iturritxo auzo ekar-tean (Latxunbe Berri 2). ||

◆ WATERPOLDA Hernani A Izarraitzen kontra

Hernani Ak Izarraitzen taldearen kontra jokatu du gaur kiroldegiko igerilekuan, eguerdiko 13:00etan. ||

Bertsolari txapelketako finala gaur BEC-en




Maialen Lujanbio.

BERTSOLARI Txapelketako finala jokatu da gaur Barakaldon, BEC aretoan eta Hernaniko bertso eskolak bi ordezkari izango ditu txapelera-ko lehian: Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze. Lujanbio gogotsu eta doinu berri eta guzti dioa. Txapelketan bere burua ez probatu izana da bere kezka nagusia, Kronikari eskainitako elkarrizketan adierazi duenez. Mendiluze berriz, final erdieta-ko patxadarekin dioa, eta bere hitzetan, *bertsotan egitera*. Saioa goizeko 11:00etan hasiko eta Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluzeren ondoan izango dira Andoni Egaña, Unai Iturria-

ga, Igor Elorza, Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Jon Maia. 11:00etan hasi eta egun osoko saioa da, eta ETBk zuzenean botako du. Euskadi Irratiak eta Herri Irratiak ere ere zuzenean emango dute. Internetez ere jarraitu ahal izango da hiru medio horien webguneetan. Txapeldunari Imanol Lazkano bertsolariak jarriko dio txapela.

BEC-en 13.000 pertsonatik gora bilduko dira gaur, eta sarrera guztiak bukatu dira. 13.000 horietatik 250 inguru Hernanitik dioaz, antolakuntzak emandako datuen arabera. Hiru autobus atera dira Hernanitik. || (2-3 orriak)




Aitor Mendiluze.

Hernaniko emakumeen
historiari buruzko
liburua

Edozeinentzako
opari polita...

Lete liburu dendan salgai.



- LEKEITIO Emperatriz Zita : 203,30 €
"programa vitalidad" tratamentua. 2 gau, M/P
- HOTEL "Ciudad de Haro": 99,50 €
A/D + bodegara bisita
- KANTABRIA: 2 gau
"Palacio Guevara": 87,85 € (A/D+afari 1)
"Hospederia Santillana": 80,40 € (M/P)
"La casona de Luis": 62,80 € (M/P)
- ESKIATZERA: egun 1
Candanchu: 39,00 € Gouret: 46,00 €
- NAFARROAra asteburu pasa:
Olite "Lajoyosa Guarda" hotela: 128,50 (A/D)
Beruete "Peruskenea": 96,30 € (A/D + afari 1)
Irati Bailara (Besaro hotela): 79,18 € (A/D + afari 1)
- TALON HOTEL: bancotel 50,00 €
eta kontsultarako beste aukera asko...
Fetyak konfirmatu behar dira

Egin Olentzerorena.
Opantu asteburu-pasa bat.



**HERNANI
BIDAIAK**

hernanib@teleline.es
Urbieta,6 - 20120 HERNANI

943 33 00 49 / 943 33 01 74

Lujanbio: «Irabazi lezakeela sinisten duenak irabaziko du txapela»

Maialen Lujanbio bertsolaria ikuspuntua lantzen saiatu da gehiena, azken urteetako bidea pulitzen. Gogoz eta ilusioz dijoa BEC-era, baina, txapelketan aurretik kantatu ezak kezka ere sortzen dio Hernaniko bertsolariari.

MAIALEN Lujanbiok (1976) Euskal Herriko Bertsolari txapelketako hirugarren finala jokatu du gaur Barakaldoko BEC-en. Egañarekin batean hernaniarra da faborito nagusia. Aurrekoan bigarren egin zuen, eta gero Gipuzkoako txapela irabazi. Lujanbiok gaurko finalera daramakien kezka nagusia da bere burua txapelketan probatu gabe nola erantzungo duen jakitea. Eta dio lehenengo saioak garrantzitsuak izango direla pultsua hartzeko. Maialen Lujanbiok zortzi puntuko doinu berria plazaratu du gaur, 8-7 silabakoa eta jatorri katalana duena.


Zer aldartetan zoaz gaurko finalera, ze sentsazio daukazu? Txapelketan orain arte aritu ez eta jende aurrean probatu falta sentitzen dut batetik. Bestetik berriz, gogo daukat txapelketak berekin dituen tentsioa eta kontzentrazio egoera hori bizitzeko. Eta ilusioa ere bai gauzak ondo egiteko.

Zer helbururekin zoaz, saio aldetik zein postu aldetik?

Helburuetan, bakoitzak bere buruari jartzen diona da bat eta gero daude postuak. Eta lehenengoa betetzen bada, bestea ere hor nonbait ibiltzen da. Nik nahi dudana nere bertsokera egin, nigandik eta errealitatetik hurbilekoa. Haundikerietara edo gauza puztuegietara jo baino nahia go nuke hankak lurrean ditudala ikusi gauzak. Ikuspuntu horretatik kantatu, eta ahalik eta ondoen egin. Horrek esan nahiko luke postuetan gora samar ibiliko nintzatekeela, ondo egiten badut eta apreziatzen bada, noski. Ez da txapelketako helburua eta ahalegina bakarrik, horixe da orokorrean bertsotan egiten saiatzen naizena.

Hankak lurrean jarrita, zure ustez, ahalegin horrek sarbide erreza al du txapelketan, beste ahalegin batzuk bezalako, alegia?

Beno, gerta liteke ahalegin batzuk ez izatea hain brilanteak edo hain ikusgarriak. Agian da ahalegin bat zu egiten ari zarena eta izugarritzko logika dauka zure prozesuan, baina, igoto jendearentzako ez



Hankak lurrean dituela kantatu nahi du, baina, gora begiratzen du. Bertsolari gehienak bezala, antolakuntzak Bilbon jarritako hotelean pasa du gaua.

da oso brilantea, inkluso ez da aldaketa haundia ere, eta agian ez da oso luzitua. Edo gerta liteke ez gustatzea ere.

Etorriko al du txapela Hernanira?

Ez dakit. Ikusten da jendea fuerte dagoela eta hor hauta-

gai mordoxka dago. Uste dut irabaziko duela irabazi lezakeela sinisten duenak. Hori izango da klabea. Ze, bertso

«Txapelketa hasterako bai sentitu nuen presio berezia, baina, orain lasai nijoa»

AURREKO txapelketako oroitzapena, faborito izatea, jendearen espektatibak, txapelkunorde izatearen karga... Maialen Lujanbioa aitortu du txapelketa hasi aurretik halako presio berezi bat sentitu zuela. «Gero, txapelketak bere bidea egin du, eta badaikit jendearen espektatibak

altuak direla, baina, besteen maila ikusita gauza parekatuago daude. Alde horretatik, orain lasaiago nago, eta presio berezirik gabe nijoa.»

mailan, badago talde bat punta-puntan ibiltzeko moduan.

ESANAK

► Kezka

«Gaurko nere kezka nagusia da jende aurreko probarik gabe txapelketan nola aurkituko naizen.»

► BEC, ederra

«BEC aretoa leku oso ederra eta bildua da, Belodromoak baino espazio huts gutxiago dituen.»

► Bezpera lasai

«Atzo mendi buelta bat egin nuen, gero siesta eta iluntzean Bilbora, antolakuntzak jarritako hotelera.»

► Plazaz plaza

«Nere plazaz plazako bertsolaritza nere bizi aroekin oso lotuta dijoa, garaian garaiko kezka eta interes gaiekin.»

Besteak fuerte ikusten dituzu orduan...

Bai, fuerte eta ilusioz. Sentsazioa ematen dit orain dela lau urte bigarren egin banu, izan zela (prestakuntza aparte) aurreko txapelketan arantza sartuta gelditu zitzaidalako. Eta orain ere iruditzen zait 2001ean arantzarekin gelditu zirenek aukera gehiago izango dutela gora egiteko.

Zer entrenamendu egin duzu finalerako.

Aurreko txapelketan espezifikoagoa egin nuen, zer egin garbi neukalako. Orain, bide hura pulitzen ahalegindu naiz. Ikuspuntua lantzen saiatu naiz batez ere, eta errimak-eta ere egin ditut.

Zer du 2005eko Maialenek 2001ekoak ez zuena?

Lau urte gehiagoko bizi esperientzia, lau urte gehiagoko bertso esperientzia, eta estilo aldetik berria izan zena biluzten joatea.

Doinu berria ere aterako duzu finalean?

Bai, Leridako doinu baten moldaketa da. Zortziko zaharra bezala, 8-7 da, eta zortzi puntukoa. Doinu estua da, sobrako gauzarik esateko tarterik uzten ez duena, eta ondo egitekotan kateatu beharrekoa.

Zer lanetan aterako duzu?

Seguruena kartzelan, lanean, goizean.

Nola ikusten duzu plazaz plaza zure burua?

Bizi aroei oso lotuta dijoan gauza bat bezala ikusten dut. Momentuko kezka eta interesgaiekin batera dijoana. Gaur egunean bertsolaritza da nere egiteko eta arretagune nagusia.

Eta bertsolaritza nola ikusten duzu, boom-a al dator berriz?

Txapelketa izugarritzko jende pila dabil, gazte asko. Bukatu eta asentatzen denean ikusi beharko da eta jende hori plazetara joaten den, edo zer eskaini behar zaion joan dedin. Saio mota edo formato berrien gaia ere hor dago..., gazte horiengana nola iritsi... ||

Mendiluze: «Ni bertsoan egitera noa eta badakit nere aukerak badauzkadala»

Aitor Mendiluzek dio lasai eta presiorik gabe sentitzen dela gaurko finalerako.


AITOR Mendiluzek (Andoain, 1975) Euskal Herriko bertsolari txapelketako bigarren finala du gaurkoa. Aurrekoan baino seguridade gehiagoz omen dijoa, zertara dijoan jakinean. Andoaindarrak Gipuzkoako txapeldun izana da. Aurreko Txapelketa Nagusian hirugarren egin zuen, baina, ez zen erabat gustora gelditu, bertso gogoangarriak botatzen ez zuelako.

Zer gorputzekin zoaz BECera? Semifinaletako sentsazio bera daukat, ikaragarri lasai eta jaialdi batera bezala noa. Noski, finala da, eta berezia. Bertsoan egiteko gogoz noa (behin eta berriz azpimarratzen du idea hori). Ez dakit lasaiegi joatea ere ona den topea emateko, baina, presiorik gabe noa.

Zer helburu ditu Mendiluzek? Aurreko txapelketan halako sentsazio arraro batekin gelditu nintzen. Bertsoan ondo egin bai, hirugarren gelditu ere bai, baina, entzuleari ezer gutxi utzi nion sentsazioa gelditu zitzaidan. Nahiko nuke gaur bertso gogoangarri batzuk botatzea, eta horretan daukat burua jarrita postuetan baino gehiago.

Aurrekoan hirugarren egin da, ez al zoaz txapelaren bila?

Beste batzuk daukate irabazteko ardura edo presioa, nolabait esateko. Nere buruari ez diot karga hori jarri, baina, badakit nere lana ondo egiten badut, aukerak badauzkadala eta besteek ere egin egin beharko dutela.



Aitor Mendiluze etxean lo eginda joango da finalera.

Zein izan litezke klabeak? Ofiziotan egongo da klabea, zortziko haundian eta txikian. Zortziko txikian lau bertso,

asko da. Puntuazioan ez ezik, hasierako ofizioetan norbere buruarengan konfiantza izateko ere garrantzitsua da hori.

ESANA

Ofiziotan klabea

«Gaur ofiziotan egongo da klabea, zortziko haundian eta txikian. Zortziko txikian lau bertso asko da. Puntuazioarako ez ezik, hasierako ofizioetan norbere buruarengan konfiantza izateko ere garrantzitsua da hori.»

Ni zortziko txikian eroso eta ondo ari banaiz, saioa dominatzen dudana sentsazioa izaten dut. Puntuazioan, egia da, bakarkakoan alde haundiagoak egon litezkeela.

Finalari begira, zerk kezkatzen zaitu gehiena?

Egia esan, sentitzen dut ideetan ondo edo errez nabilela, eta batzutan, idea horri forma ematea da kostatzen zaidana. Prestaketa berezirik ere ez dut egin batzuetan antzeman egiten dut hori.

Txapelerako edo buruz bururako aukerekin eta prestaketa berezirik gabe finalera...

Bertso eskolan bildu eta bertsoan aritu gara eta prestaketa hori egin dut. Burua ere gehiago zentratuta egoten da beti... Baina, prestaketa berezirik ez dut egin ez, eta uste dut nik normaltasun bat behar dudala bertsoarako. Nere burua ezagutzen dut, eta hamabost egun jai hartu eta horretaraxe jarri izan

banintz, seguruenen erdirik ere ez nuen egingo.

Gaurkoa Euskal Herriko bigarren finala duzu. Zertan aldatu da Mendiluze bertsolaria, eta finala bizitzeko modua.

Final hartako sentsazioa izan zen, jo, hau ikaragarria dek!. Oholtzara igo eta hainbeste mila pertsona... aurreneko aldia... Oraingo sentsazioa da, jo, hau final earra! Hemen bertsoan egin behar dik! Zertara zoazen jakinarene gainean noa orain, beste seguridade batekin.

Nola ikusten dituzu beste zazpiak, zein dira (zutaz aparte) txapelerako zure favoritoak?

Egaña, Maialen eta Iturriaga ikusten ditut aukera gehienekin. Egaña ez du ezer erregalatuko, Maialen oso ondo ikusi dut entrenamenduetan, eta Iturriagak Hendaian erakutsi zuen zenbat lezakeen. Donostiako saioan irregularrago jardun arren, Hendaiakoa da benetako Iturriaga, ez Donostiakoa. Besteak ere oso fuerte daude, eta aurreko muturrean sartzeko aukera haundiak dituzte.

Zer moduzko lekua da iruditu zaizu da BEC, kantatzeko zein entzuteko?

Ederra. Oso toki eroso, bildua eta beroa da. Kantatzeko eta entzuteko ere egokia, giroa sortzeko aproposa.

Nola ikusten duzu zeure burua plazaz plaza.

Eroso ikusten dut. Gustora sentitzen naiz eta disfrutatzen egiten dut. Saiatzen naiz saio bakoitzari zerbait berezia ematen. Bertsoakera bat ere definitu dut, eta hori ere inportantea da. Gero, batzuei gustatuko zaie eta beste batzuei ez hainbeste.

Txapelketak beste aparraldia ekarriko al du?

Gorakada ekarriko du, baina, positiboan, ez da boom hutsa izango. Bertsolariak prestigio bat lortu du, eta txapelketaren bultzada epe luzean izango da nere ustez. ||

ARALAR
TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8 - ☎ 943 33 15 06

VGALDETXXO
Jatetxea

BAZKARIAK
ETA
AFARIAK

Ereñozu auzoa
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Tel: 943 55 02 40

KIA

KIA MOTORS

CAPDEQUI-ASTIGARRAGA, S.L.
Kontzesionario Ofiziala
Donostia ibilbidea 76, Pol. Bidebitarte

ASTIGARRAGA
Tlf: 943 550 449

TELEFONDAK Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 **DYA**: 943 464622
Autobusak: 943 556662 Anbulatorioa: 943 006666 Jokalari anonimoak: 943 331103
Alkoholiko anonimoak: 943 331103 FARMAZIAK Egunez: **Bilbao-Sagastiberri** Urbieta 7 - 943 552941 **Gauzez: Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793



Errapia taldeko festa atzo. Errapia arte tailerreko festa izan zen atzo, goizean zehar graffitiak egiten aritu ziren eta Zikuñagako Eskola Zaharrean duten tailerreko kanpoaldea kolorez eta irudiz apaindu zuten. Arratsaldean poesia, jazz eta antzerkia izan ziren eta gauean musika emanaldiak. ||

Jasota Bezala

6 Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa 7 Gehienez 1.000 karaktere onartuko dira 4 Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

EHNA egin eta erabili

Hilabetero izaten ditut aurrez-aurrekoak senideekin. Ziztu bizian alde egiten duten bi ordu dira; ez dute alde egiten ordea aztarnarik utzi gabe, barne algarak, begiradak, besarkadak, hitz egindako kontu serio eta ez hain serioak, oroitzapenean gelditzen dira. Katuak ez dakit zenbatgarren mendeko platera dotorea (beti oso itsusia iruditu zaidana, portzierto) puskatu duela, aitzak bere paseo-koak egiten dituela, izebak zera esan zuela aurreko batean, lehengo ostiralean kontzentrazioan izan zirela eta harekin eta bestearekin topatu zirela eta musuak eta besarkadak bidaltzen dituztela... Kartzelan egunerokotasuna elikatu eta aberasten duten mila kontu, hemen eta orain aipagarriak ez diren mila kontu, berezko garrantzirik ez dutenak. Baina bada kontutxo hauetako bat aurrez-aurreko batean aipatu zidatena eta nik ziega batean hain beharrezkoa den irudimenaz apaindu dudana, gutun honetarako.

Ama eta lagun bat joan omen ziren oroitzen ez dudana denda batera, oroitzen ez dudana zerbait eroatera (nere memoria selektiboa

barkatuko didazuelakoan...) eta nik irudikatzen ditut bi emakumeak erosketak egiten, kontu kontari, xahutuko duten diruarekin gehiegi kezkatu gabe, "egun batekoagatik" pentsatzen dutela.

Eta hantxe aurkezten dira erosi asmo duten guztiarekin. Dendariak irribarre atseginez hartzen ditu, salmenta ona egin behar duen plazer ezkutuaz. Holakoetan tarjetaz ordaintzeko nortasun agiri bat erakutsi beharra dago eta eta amak EHNA aurkezten dio irribarre atsegineko dendariari. Dendariari ordea, aurpegia aldatzen zaio, irribarra ez da orain hain irribarretsua eta ez dakit zehatz-mehatz zein hitzekin baina nortasun agiri horrek ez duela balio esaten dio amari.

Eta ama eta bere lagunak "pena da ba hau dena ezin erosi eta hemen utzi beharra" esan eta, horrelaxe, burua tente, harro eta alai badoaz beren EHNAekin. Atzean utzi dute dendari orain ez hain irribarretsua, eta atzean utzi dute hipokresia, epelkeria, errealtatea onartu nahi ez dutenen inozokeria. Errealtatea baita euskaldunak garelako eta euskaldun gisa bizi nahi dugula Euskal

Herrian. Errealtatea da egoera eta leku gehienetan onartzen diotela EHNA amari agiri baliogarri gisa, eta onartzen ez diotenak atzean utzi dituela, bidean atzean, historian atzean. Herri hau aurrera baitoa, aurrera gure eskubideen aldarrikatze eta gauzatze bidean, aurrera gure historia eraikitzen, herria eraikitzen.

EHNA egin eta erabiltzea beste pauso bat gehiago da eraikitze bide horretan, debeku eta ukatze guztien gainetik aurrera egingo dugu gure eskubideak gauzatzen baititugu inoren baime-naren zain egon gabe.

Gustora egin dut barre istorioxa kontatu didatenean eta kideei kontatu diet aurrez-aurretik bueltan eta barre egin dugu atseginez, ez salmenta ona egin behar duenaren irribarreaz, baina bai borroka irabazten ari garenen irribarreaz, askatasuna irabazten ari garenen irribarreaz, historia egiten ari garenen irribarreaz. Historia guk geuk egiten dugulako, eta horretarako tresnak dauz-kagulako: egin eta erabili EHNA.

Oihane Bakedano,
euskal preso politikoa.

EGURALDIA
GAUR Eguraldiak hobera egingo du. Goizetik lainotsu egongo da zerua eta euria egingo du. Arratsaldetik aurrera zerua garbitzen joango da. Tenperaturak behera egingo du.

BIHAR
Aurreko egunetan baino zeru garbiagoa ikusiko dugu. Tenperaturak jaisten jarraituko du.

(euskalmet)



Marga, Lizeaga kalean dagoen Aداuxu denda.

MERKATARITZA

Aداuxu denda Lizeaga kalean

Aداuxu denda ireki zuten udan Lizeaga kaleko bigarren zenbakian. Bertan aurkitu daitezke emakume gazte eta helduentzako jantziak, konplementuak, poltsak, gerrikoak, pitxiak eta abar. ||

OKUPAZIOA

Isuna ordaintzeko mariskada

Aitor Zinema okupatu eta identifikatutako 3 gazteen isuna ordaintzeko mariskada antolatu dute. Gaur errifak saltzen egongo dira Kaxkoan. Zozketa arratsaldeko 20:00etan da plazan. ||

ESKERTZA
Maria Rosa Aranburu Urkizu
Senitartekook eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batera edo bestera egun hauetan gurekin egon zeratenoi.
GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO.
Hernanin 2005ko abenduaren 18an.

IRAGARKI MERKEAK

Etxe bat salgai Gudarien plazan. 50 m2 ditu. Interesatuek deitu: 679 10 75 06 (Arratsaldeko 13:30etatik 15:30etara)

Garajea alokatzen dut Arantzazu plazan. Bi kotxerentzat du lekua. 250 euro hilean. Deitu: 630 03 30 80

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Kotxea salgai. Peugeot 206. 115.000 km ditu eta 1999koa da. Prezioa 4000 €. Interesatuek deitu: 618 816 960

Salgai tabako makina, freidora, telebista eta eskuak lehortzeko makina. Deitu: 653 727 916

Arrotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

DVD KLUB DIGITAL ZINEMA PARAISO

DVD eta Play Station 2-ren alokairua
Klasikoak eta nobedadeak
1200 pelikulatik gora aukeran zuretzako

Bideo joku eta akzesorioak salgai

PS2 GBA PSP
game boy micro berria

GABONETAKO BEREZIA!!!!
Konsola edo PSP jokua erosteagatik eraman zure UMD'entzat estutxe bat

DOHAINIK!!!!

Elkano Kalea 1 behea - ezk. HERNANI Tf 943 557 366 **bixitatu gaitzazu interneten - www.digitalzinema.com**